



HONDAKIN ARRISKUTSUAK

HONDAKIN ARRISKUTSUEN SORTZAILEEN BETEBEHARRAK



Zer dira hondakin arriskutsuak (HA)?

Giza osasunerako, baliabide naturaletarako edo ingurumenerako arriskutsua izateko adinako kontzentrazioan daude gaiak edo materialak dituzten hondakinak.

Adibidez, hauek dira HONDAKIN ARRISKUTSUAK:

Olio erabiliak, likido hidraulikoak, disolbente erabiliak, bateriak, koipeak, silikonak, gai arriskutsuekin bustitako trapuak eta kotoiak, gai arriskutsuekin erabili diren ontziak, olio-iragazkiak, taladrinak, bainu agortuak, olioak dituzten artezketa-lohiak...

Bulegoetako mantentze-lan elektrikoak egitean botoi-pilak, hodi fluorezenteak eta presio handiko merkurio- eta sodio-lurrunezko lanparak.



Zer egin behar dut nire ekoizpen-prozesuan Hondakin Arriskutsuak sortzen baditut?

Urtean guztira sortzen duan hondakin arriskutsuen kopurua zehaztu:

- Urtean 10 tona baino gutxiago sortzen badut, HAen Ekoizle Txikia naiz, eta, beraz, HAen EKOIZLE TXIKIEN ERREGISTROAN izena emateko eskaera egin behar dut Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzan.
- Urtean 10 tona baino gehiago sortzen badut, HAen EKOIZLE IZATEKO BAIMENA eskatu behar dut Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzan.

Zer egin behar dut sortutako Hondakin Arriskutsuekin?

Hondakin Arriskutsuak ez dira nahastu behar bata bestearekin eta honela biltegitatu behar dira:

1. Ontzi eta itxiturretan, hondakinak horietatik ez ateratzeko moduan; ontzi eta itxiturak erasorik izaten ez duten materialez egin behar dira.
2. Ontzi eta itxitura solido eta iraunkorretan.
3. Sortutako hondakin-mota bakoitzeko ontzi indibidualetan.

Gehienez ere sei hilabetez biltegitara daitezke, eta ezaugarri hauek izan behar ditu:

1. Zementuzko edo hormigoizko lurzorua (iragazgaitza).
2. Euriak ez bustitzeko babestuta (ontzi eta mugikorrenzako aholkua).
3. Hondakin Likidoek kubeta bat edo zintarri bat izan behar dute, isurpenak eragozteko adinako altueran.



Hondakin Arriskutsuak biltzeko ontziek etiketak izan behar dituzte. Etiketak informazio hau izan behar du:

1. Hondakinaren ekoizlearen datuak: enpresaren izena, helbidea eta telefonoa.
2. CER kodea (Europako Hondakinaren Katalogoan agertzen da) eta hondakinaren kodea. Bi kodeak hondakinaren ekoizleak ematen ditu.
3. Biltegitatu den eguna.
4. Arriskua adierazten duen piktograma.

www.euskadi.net/vima.residuos/datos/pictogramas.pdf



Nora eraman behar ditut sortutako Hondakin Arriskutsuak?

Hondakin Arriskutsuak KUDEATZAILE BAIMENDU batek kudeatu behar ditu BETI. Horretarako, hondakin-mota hauek kudeatzeko baimena duten kudeatzaileen zerrenda bat dago. Zerrenda horretan, kudeatzen duten hondakin-motaren arabera sailkatuz daude kudeatzaileak, kudeatzaile guztiak ez baitituzte onartzen hondakin-mota guztiak.

Hondakin Arriskutsuak horiek garraiatzeko baimena duen garraiolari batek eraman behar ditu.

Zein dokumentazio izan behar dut Hondakin Arriskutsuen Kudeakearen ondoren?

1. Hondakin Arriskutsuak KUDEATZAILE BAIMENDU batek kudeatu behar ditu BETI.
2. Entregaren aurretik, kudeatzaileak ONARPEN-DOKUMENTU bat sinatu behar du *hondakin bakoitzeko*.
3. Lekuz aldatu baino 10 egun lehenago, hondakin horiek LEKUZ ALDATZEKO JAKINARAZPENA bidali behar dut Ingurumen Sailburuordetzara.
4. Hondakinak entregatu aurretik, kudeatzaileak KONTROL- ETA SEGIMENDU-DOKUMENTU bat eman behar dit *hondakin bakoitzeko*.
5. Hondakinak eramango dituen garraiolariaren baimena egiaztatzen duen dokumentazioa.
6. Hondakinak kudeatzen noan heinean, HAen ERREGISTRO-LIBURUA bete behar dut, datu hauekin:
 - Sortutako hondakinak.
 - Hondakinaren kantitatea, jatorria eta identifikazio-kodea.
 - Kudeatzaile baimenduari hondakina eman zaion eguna.
 - Biltegitatzearen lehen eta azken eguna.
 - Jasotzeko maitatzasuna.
 - Garraioa.
 - Kontrol- eta segimendu-dokumentuko zenbakia.
7. HAen EKOIZLEA banaiz (urtean 10 tona baino gehiago sortzen badut) URTEKO ADIERAZPENA egin behar dut urtero, eta Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztu behar dut martxoaren 31 baino lehen. Gainera, lau urtetik behin, Hondakin Arriskutsuak MINIMIZATZEKO PLANA egin behar dut.

Nora joan naiteke zalantzaren bat badut?



Ingurumen-arazoak konpontzeko irtenbideak eskaintzen ditugu

ihobelive
900 15 08 64

Euskal Enpresarako Doako Ingurumen Argibide Zerbitzua
Servicio de Información Ambiental Gratuito para la Empresa Vasca